

INDARKERIA SEXISTARI BURUZKO GAZTEEN PERZEPZIOA TXORIERRIKO MANKOMUNITATEAN



2014



TXORIERRIKO MANKOMUNITATEA

AURKIBIDEA

Testuingurua	2. Orr.
Metodologia	4. Orr.
Parte hartze datuak	9. Orr.
Diagnostikoaren emaitzak/ Emaitzak nesketan	10. Orr.
Emaitzak mutiletan	21. Orr.
Ondorioak	33. Orr.
Gomendioak	37. Orr.

Indarkeria sexista

Azken urteotan, bortizkeria sexista bikote nagusi eta iraunkor batean ematen den arazo indibidual eta pribatu izatetik, jendarte guztia kontzientzia hartu dion eta bere hainbat adierazpenekin izaten ari den arazo sozial larri batera pasa egin da.

Emakume taldeek buruturiko lanari, pixkanaka-pixkanaka murgildu ziren erakundeei eta munduari jadanik munduak bazekiena erakutsi hasi ziren komunikabideei esker, bortizkeria sexistarengan dagoen giza mespretxua errealitate eztabaida ezina da gaur egun.

Gaur egun, bortizkeria sexista eraso fisikoetara mugatzen denaren inguruko sinesmena ez dago hasiera batean zegoen bezain hedatuta, ezta ere erasotzaileak izan al duen pertsonalitatean, eduki al duen alkohol edo bestelako drogen dependentzian edota pairatzen duen egoera sozioekonomiko marjinallean. Argi gelditu da, bortizkeria sexista erabat estrukturala dela eta adin, posizio sozial zein maila kultural ezberdineko emakumeak pairatzen dutela.

Guzti hau kontuan harturik, oraindik lan asko egiteke dago zeren eta oraindik ere bortizkeria espresio ezberdin asko daudelako ondo ezagutzen ez ditugunak eta barneratzeko zein asimilatze oso errazak diren; horien artean gazte bikoteen artean ematen dena.

Indarkeria sexista gazteen arteko harremanetan. Nola sumatzen dute indarkeria?

Gazteen arteko bikote harremanetan eragin bat dago, eta normalki "maitasun erromantikoa" deituriko horrek irudikatzen dituen sinesmen eta topiko guztien bidez zuzentzen dira. Bikote harremanen ikuspegi hau argi dago kaltegarria dela, emakumeen kontra eragindako indarkeria sexistan biltzen diren portaera gehienak ezberdintzea galarazten duelako.

Maitasunaren ikuskera distortsionatu horren barruan, maitasunagatik egiten denaren aitzakiarekin, hain zuzen ere, ia dena onartzen da. Honi, maitasunak sufrimendua sortzen duenaren sinesmena gehitu behar zaio; "maite zaituenak sufriaraziko dizu", "maitasunak min ematen du". Kontrola, jeloskortasuna eta baita derrigortzea ere nahastu egiten dira, eta, beraz, barkatu eta harremanaren osagai bat gehiago bezala onartzen dira. Neskak, harreman bat duten mutila jeloskorra izateaz harro ere sentitzen dira.

Bikote gazteetan maiztasun handiagoarekin agertzen diren "maitasun erromantikoan" dauden mitoak hurrengoak izango lirateke:

"Laranja erdiaren" mitoa, honek, bizitzan behin bakarrik aurkitzen den "benetako maitasuna" aurkitzera predestinatuta gaudela adierazten du, eta "laranja erdi" hau, gure "beste erdia", gure "arima bikia" izango da, behar duguna eta, beraz, pertsona osoak izatera eramango gaitu.

Mito honen barruan, zoriontsu izateko eta bizitza oso bat edukitzeko bikote bat edukitzea beharrezkoa izatearen onarpena ere aurkitzen dugu.

Jeloskortasunaren mitoa, jeloskortasuna maitasun seinale batekin nahasten da, eta baita benetako maitasunaren ezinbesteko baldintza bezala ere.

“Benetako maitasun” honek gorputz eta arima aritzea dakar, autonomia galtzea, eta jabetza eta eksklusibotasuna eskatzen ditu. Ikuspuntu honetatik, beste pertsonagatik intimitateari uko egitea onartzen da, bikote baten ezin da sekreturik egon eta den dena partekatu behar da.

Sinesmen honen barruan **fideltasun eta eksklusibotasun mitoa** sartzen da, planteamendu sexistak argi batetik emakumeak eta gizonak modu ezberdin baten epaitzen dituen.

Ahalguztiduntasunaren mitoa: “maitasunak guztiarekin ahal du”, “benetako maitasunean” ez dute kanpoko edo barruko oztopoek eraginik eduki behar bikotearengan, eta arazo guztiak konpontzeko maitasunarekin nahikoa da, ahalguztiduntasunaren mitoaren ideiak hau guztia adierazten du.

Mito hau portaera edo jarrera jakin batzuk ez aldatzeko aitzakia bezala erabilia izan daiteke, edo bikote arteko gatazkan balorazio negatibo batera eraman dezake, honi aurre egiten utzi barik.

Beste alde batetik, gazteengan genero rolek duten eragina ezin dugu ahaztu. Honela, badirudi haiek argiago dutela beraien bikoteen kontrolpean noiz dauden, eta harremanean arauak jartzeko gai dira, edo baita harremana apurtzeko ere gogaituta sentituz gero.

Nesken kasuan portaera hauek ez dira hain sarri ematen, beraien genero rolak ulerkorragoak izatera, onartzera eta benetan eroso sentitzen ez diren beraien bikoteen portaerak justifikatzera eramaten dituztelako. Mutilekin ama papera hartzen dute, eta azkenik mutilak aldatu egingo direla sinestarazten diote beraien buruei.

Deskribapena

Diagnostiko hau 15etik 20 urtera bitarteko neska mutil gazteetan ardaizten da. Proposamen metodologikoak fase oso ezberdindu bitan datza: lehenengo fasean neskentzat eta mutilentzat galdetegi espezifikoko baten bitartez analisi kuantitatibo bat egin da, eta bigarren fasean analisi kualitatibo bat. Bigarren hau da, behin galdetegietako informazioa atera ostean, lan arlora eraman zena. Hemen galdetegiari erantzun zioten ikasleekin galdetegian bertan planteatu diren gaietan sakondu ahal izateko eztabaida taldeak egin dira.

Halaber, eta analisi kualitatiboa osatzeko, eskualdeetako herrietako gazteentzako elkargune ezberdinetan (gaztegunek, gaztelekuak eta lonjak) eztabaida taldeak egin dira.

Ikerketa honetan guztira 346 gaztek parte hartu dute, 149 neskak eta 197 mutilek, bai parte kuantitatiboan (galdetegiak beteaz) bai kualitatiboan (eztabaida taldeetan parte hartuaz).

Guztira 346 gaztek Txorierriko biztanleri gaztearen %42,92a suposatzen du, eta eskualdeko biztanleriaren eredu adierazgarri bat suposatzen du.

Tresna metodologikoak

Diagnostiko honen lanketarako tresna ezberdinak erabili dira:

Galdetegiak

Analisi kuantitatiborako galdetegi ezberdin bi erabili dira, bat neskentzat eta beste bat mutilentzat. Lehenengo kasuan VE-c Eskala erabili da, aldez aurretik balioztatua, "Indarkeria psikologikoaren larritasunaren pertzepzio femeninoa gazteen nobiotza harreman heterosexualean" neurtzen duena. Mutilen pertzepzioa neurtzeko VE-m Eskala erabili da, fidagarritasun handikoa dena.

Tresna biak BBK, Emakunde eta Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin egindako ikerlanari eskerrak lortu ziren, nobiotzan zehar emakume gazteen kontrako indarkeriari buruz Itziar Cantera, Ianire Estébanez eta Norma Vázquezek egina, eta oso egokiak izan ziren bai analisi kuantitatiboan bai kualitatiboan.

Eskalak guztira 25 portaera biltzen ditu, hauetatik 23 harremanean zehar agertzen dira eta 2 harremanaren amaieran. Hurrengo eran antolatzen da:

- 1 Norekin irten zaitezkeen eta norekin ez esaten dizu
 - 2 Jantzeko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esaten dizu
 - 3 Egiten duzun guztia jakin nahi du, non zauden edo norekin zauden berarekin ez zaudenean
 - 4 Zure telefono deiak eta mezuak, baita posta elektronikoa ere, arakatzen ditu
 - 5 Ez du zu lagunekin elkartzerik nahi
 - 6 Beste mutil batzuekin ikusten zaituenean, haiek liluratu eta erakarri nahian zabiltzala diotsu
 - 7 Azkenaldian, ibili ohi zaren lekuetan agertzen da abisatu gabe
 - 8 Zure itxura, janzkera edo pentsaera kritikatzten du
 - 9 Burla egiten dizu eta, horretarako, min handia ematen dizuten kontuez baliatzen da
 - 10 Ez ditu bere hutsegiteak onartzen, eta inoiz ez du barkamenik eskatzen
 - 11 Ez da hitzordura azaltzen inolako azalpenik eman gabe
 - 12 Antigoaleko bat zarela dio, zure sentipenak zalantzan jartzen ditu edo kritikatzten zaitu berarekin sexu harremanik nahi ez baduzu
 - 13 Ez da antisorgailuez arduratzen edo kezkatzen
 - 14 Bere kabuz erabakitzen du kontsultatu barik edo zure iritzia eskatu barik
 - 15 Tranpak jarri dizkizu zenbateraino maite duzun jakiteko
 - 16 Emakume guztiei buruz gaizki esaka ibiltzen da, baita burlaka ere
 - 17 Zure objektu pertsonalak (zorroa, agenda, eta abar) arakatzen ditu baimen barik
 - 18 Berak nahi duena egiten ez baduzu, utzi egingo zaituela esaten dizu mehatxatzeko
 - 19 Telefonoz deitzen badizute jeloskor jartzen da
 - 20 Harremanaren arauak inposatzen ditu (ateratzeko egunak, ordutegiak, irteera motak, etab.)
 - 21 Egunean 10 bat dei galdu (edo mezu) baino gehiago egiten dizu
 - 22 Lotsarazten zaituzten gauzez hitz egiten du, zelan sentiarazten zaituzten badaki ere
 - 23 Zure haserrealdiak ez ditu kontuan hartzen edo tontakeriatzat jotzen ditu
- Momenturen batean harremana eten bazenuten**
- 24 Berarekin itzuli ezean zerbait egingo zizula esaten zizun

25 Berarekin itzultzeko esaten zizun behin eta berriz; aldatuko zela esaten zizun, hitza ematen zizun

Eskala honetako baremoaren arabera, identifikazioan lor daitekeen puntuaziorik altuena 125 da. 0tik 70era bitarteko puntuazioa lortu duten neskek indarkeria psikologikoaren pertzepzio baxua dute, 71 eta 89 bitarteko puntuazioa lortu dutenek ,erdiko pertzepzioa, eta 90etik gorako puntuazioa lortu dutenek, indarkeria psikologikoa osatzen duten portaeren pertzepzio altua dute.

Bestalde, intentsitatearen puntuazioa 1etik 5era doa; 1 intentsitate minimoa da eta 5 muturreko intentsitatea. Eskalak, beraz, indarkeria psikologikoaren identifikazio maila bat eta bera osatzen duten portaeren larritasun intentsitatea neurtzen ditu.

Gainera, adina, hezkuntza zentroa, ikasketa maila, nazionalitatea, lan egoera eta egungo bikote harremana ala izandakoa bezalako beste aldagai batzuk sartu ziren.

Nesken aldetik indarkeria pertzepzioaren analisirako, hiru dimentsiotan 25 item edo portaera hauek taldekatu dira:

- Mespretxua eta derrigortzea
- Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea
- Abusu emozionala

Mutilen kasuan VE-m Eskala erabili da **“Gazteen arteko nobiotza harreman heterosexualen eragindako indarkeriaren larritasunaren pertzepzio maskulinoa”** euskarazko bertsioan, zientifikoki ere egiaztatutako tresna bat da, indarkeria sexualarekin zerikusia zuten hainbat itemetan indarkeria fisikoa gehitzeko beharraren ondoriora heldu zen berrikuste teoriko baten ostean, VE-c Eskalatik hasita lortu zena. Eskalak, neskenak bezain fidagarritasun eta baliotasun adierazle altuak izan ditu.

Eskalak 25 item ditu, 11 kategoriei dagozkienak.

- 1 Neskari esatea zeinekin irten behar duen eta zeinekin ez
- 2 Bere itxura edo pentsatzeko erarekin sartzea
- 3 Errieta egin beste mutilekin hitz egiten duenean ligatzen dabilela uste duzulako
- 4 Ez agertzea eta bakarrik lagatzea azalpenik eman barik
- 5 Mehatxatzea ez duenean egiten nahi duzuna edo kontra egiten dizunean
- 6 Janzteko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esatea
- 7 Bere zereginiei uko egitea eskatzea, zenbat maite zaituen frogatzeko
- 8 Jaramonik ez egitea haserretzen denean edo bere haserrealdiak tontakeriak direla esatea
- 9 Berak jasotako deiak, mezuak, helbide elektronikoa, tuenti-a edo facebook-a kontrolatzea

- 10 Bera dagoen tokietara joatea, zer egiten duen eta zeinekin dagoen jakiteko
- 11 Ez badu nahi sexu-harremanik izan zurekin, kritikatzeara eta zalantzan jartzea maite zaituenik
- 12 Zure zeloaren errua berari bota, berak zeloak eragiten dizkizulako
- 13 Bere aurrean emakumeei buruzko iruzkin mesprezuzkoak egin
- 14 Uzten bazaitu bizimodu jasanezina egitearekin mehatxatu
- 15 Zuen sexu-harremanetan preserbatiborik ez erabiltzea
- 16 Berari barre egitea, beste neska batzuekin konparatzea, gauzak esatea jakinda lotsatu egingo dela edo min emango diotela
- 17 Elkarrekin egin beharreko planak zeuk erabakitzea (zein egunetan irten, nora joan, ordutegiak)
- 18 Egunean 10 dei edo mezu baino gehiago egitea, jakiteko zertan dabilen
- 19 Berak egin nahi ez dituen edo bere gustukoak ez diren sexu-jokoetara behartu
- 20 Bere lagunak ez ikusteko esatea
- 21 Eztabaida batean gauzak jo, bota edo apurtu
- 22 Besteek begiratzea nahi duelako era probokagarrian jantzen dela esatea
- 23 Laga zaituenean, aldatu egingo zarela esatea, berriro zurekin egon dadin
- 24 Sexu-harremanak izateko derrigortzea
- 25 Zure akatsak ez onartzea edo barkamenik ez eskatzea

VE-m eskalaren baremazioaren arabera, identifikazioan lor daitekeen puntuaziorik altuena 125 da. 0tik 55era bitarteko puntuazioa lortu duten mutilen indarkeriaren pertzepzio baxua dute; 56 eta 92 bitarteko puntuazioa lortu zutenek, erdiko pertzepzioa eta 93 puntu baino gehiago izan dutenek eragin dezaketen indarkeriaren pertzepzio altua edo egokia dute.

Bestalde, intentsitatearen puntuazioa 1etik 5era doa; 1 intentsitate minimoa eta 5 muturreko intentsitatea.

Halaber, neskekin egin zen moduan, hurrengo aldagai hauek sartu dira: adina, hezkuntza zentroa, ikasketa maila, nazionalitatea, lan egoera eta egungo bikote harremanak ala izandakoak.

Mutilen aldetik pertzepzioaren analisirako, lau dimentsiotan 25 item edo portaera hauek taldekatu dira, mutilen kasuan eskalak indarkeria fisiko eta sexualari buruzko portaerak gehitzen dituelako, kontuan hartzeagatik hauek pertzepzioan dimentsio psikologiko bat ere badutela:

- Ageriko indarkeria
- Mespretxua eta manipulazioa
- Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea
- Jazarpena eta deskalifikazioa

Guztira 192 inkesta egin ziren, 84 neskek erantzun zituzten eta mutilek 108. Banaketa horrela egin zen:

Derioko BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA 115 galdetegi : 61 neska eta 54 mutil

POLITEKNIKA IKASTEGIA TXORIERRI: 77 galdetegi: 54 mutil eta 23 neska

Eztabaida taldeak

Galdetegietan jasotako erantzunen analisiaren ostean, neskentzat begirale neska batekin eta mutilentzat begirale mutil batekin eztabaida taldeak antolatu ziren, bertan gazteek indarkeria portaera bezala jaso ez zituzten edo oso intentsitate baxua eman zieten erantzunetan sakondu zuten.

Analisi kualitatiborako guztira 11 eztabaida talde egin ziren, guztira 154 gaztek parte hartu zuten, 65 neskak eta 89 mutilek. Bai eztabaida taldeak, bai galdetegiak, ikasketa zetro bietan egin ziren. Institutuan neskekin eztabaida talde bi egin ziren eta beste bi mutilekin. Politeknikoan mutilekin eztabaida talde bi egin ziren eta neskekin bat.

Gainera, Txorierriko gazte zentro ezberdinekin harremanetan jarri zen (Gaztegunek, Gaztelekuak eta Gaztetxeekin) udalerrri ezberdinetako gazteen parte hartzea bilatuz: Lezama, Loiu, Zamudio, Derio, Sondika eta Larrabetzu.

Azkenik, eztabaida talde 4 egin ziren, hiru neskekin eta bestea mutilekin, beraientzat ohikoak ziren inguruetan sartzeko helburuarekin Mankomunitateko udalerrri bi "lonjetan", Derion eta Sondikan, eta beste bat, Larrabetzuko gaztetxean, burutu zen.

EZTABAIDA TALDEAK:

DERION (Lonjan): 17 urtetik 20 urtera bitarteko 15 mutil

SONDIKAN (Gaztelekun eta lonjan): 15, 17 eta 18 urteko 6 neska

15 eta 17 urteko 5 mutil

LARRABETZUN (Gaztetxean): 19 eta 17 urteko 6 neska

INSTITUTOAN: 15 eta 16 urteko 24 neska

16 urtetik 18 urtera bitarteko 16 neska

15 urtetik 18 urtera bitarteko 19 mutil

15 eta 16 urteko 19 mutil

POLITEKNIKA IKASTEGIAN: 16 urtetik 20 urtera bitarteko 16 mutil

16 urtetik 20 urtera 15 mutil

13 , 17 eta 18 urteko 13 neska

Parte hartze datuak

Adina

Diagnostikoa 15 eta 20 urte bitarteko gazteen artean egitea planteatu zen, adin hauen artean neskek eta mutilek bikote harremanetan esperientzia propioak dituztela eta hauen barruan indarkeria identifikatzeko orduan zailtasun handiagoa dutela ulertzen delako.

Dena dela, parte hartzea aztertuz, 16 eta 17 urteko gazteen parte hartze handiagoa eman zen (nesken %63,62a eta mutilen %69,88a).

Heziketa zentroak

Ikerketarako beharrezko adin tartea betetzeko ideiarekin galdetegiak egiteko ikasketa zentro bitara joan zen, konkretuki Derioko BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTURA eta TXORIERRI POLITEKNIKA IKASTEGIRA .

Heziketa maila

Diagnostikoa Batxilergoko eta DBHko 4. Maila egiten ari diren 15etik 20 urtera bitarteko gazteetan zentratu zen, baita Politeknikako kasuan ziklo ezberdinetan ere.

Bikote harremana


Ikerketan parte hartu duten gazteen artean %51,38ak (nesken %73,26ak eta mutilen %49,20ak) gaur egun bikote harreman bat du edo izan du eta %37,84ak (nesken %26,73ak eta mutilen %50,79ak) ez du horrelako esperientziarik izan.

Indarkeria psikologikoaren pertzepzio maila nesketan

VEC Eskalaren baremoaren arabera, lor daitekeen gehiengo puntuazioa 125 da.

- Indarkeria psikologikoaren **pertzepzio baxua: 0tik 70** puntutara: **%43,3**
- Indarkeria psikologikoaren **erdiko pertzepzioa: 71tik 89** puntutara: **%21,6**
- Indarkeria psikologikoaren **pertzepzio altua: 90** puntutik **gorako** puntuazioa: **%34,9**

Baremazio hau erabiliz ikusi genuen, inkesta erantzun zuten nesken %43,37ak bikote harremanetan indarkeria psikologikoaren pertzepzio baxua duela, %21,6ak erdiko pertzepzioa eta %34,9ak pertzepzio altua. Azken datu hau Bizkaian egindako antzeko beste ikerketa batzuk baino apur bat altuagoa da (Ondarroa, Markina-Xemein, %25 batekin edo Ianire Estébanezek Deustuko Unibertsitateko Emakumeen kontrako Indarkerian Esku-hartze Masterrerako Azken Tesian, %28 batekin).

**Nola sumatzen dute neskek indarkeria**

- **Mespretxua eta derrigortzea**

VEC Eskalak biltzen dituen indarkeria psikologikoaren dimentsio ezberdinei dagozkien datuak aztertzen baditugu, intentsitate handienarekin sumatzen duten dimentsioa mespretxu eta derrigortze portaerekin loturikoa dela ikusten dugu. Indarkeria dela erantzun duten nesken portzentajea %87,7koa da (batezbesteko portzentajea), eta eman dioten intentsitate maila 3,59koa da (batezbestekoa).

Jarraian dimentsio honetan sartutako item ezberdinak eta dagozkien puntuazioak aurkezten ditugu.

1go taula. "Mespretxua eta derrigortzea" dimentsioan neskek sumatu dituzten portaerak

Item zenbakia	MESPRETXUA ETA DERRIGOTZEA	Indarkeria maila (0tik-5tera)	BAIEZKOEN %a
5	Ez du zu lagunekin elkartzetik nahi	3,90	%92,6
9	Burla egiten dizu eta, horretarako, min handia ematen dizuten kontuez baliatzen da	4,24	%94
20	Harremanaren arauak inposatzen ditu (ateratzeko egunak, ordutegiak, irteera motak, etab.)	3,65	%87,8
18	Berak nahi duena egiten ez baduzu, utzi egingo zaituela esaten dizu mehatxatzeko	4,12	%94
16	Emakume guztiei buruz gaizki esaka ibiltzen da, baita burlaka ere	3,38	%85,6
12	Antigoaleko bat zarela dio, zure sentipenak zalantzan jartzen ditu edo kritikatzeko zaitu berarekin sexu harremanik nahi ez baduzu	3,86	%92,8
10	Ez ditu bere hutsegiteak onartzen, eta inoiz ez du barkamenik eskatzen	2,63	%79,3
8	Zure itxura, janzkera edo pentsaera kritikatzeko du	3,32	%90,3
17	Zure objektu pertsonalak (zorroa, agenda, eta abar) arakatzeko ditu baimen barik	3,48	%88
22	Lotsarazten zaituzten gauzez hitz egiten du, zelan sentiarazten zaituzten badaki ere	3,37	%86,6
24	Berarekin itzuli ezean zerbait egingo zizula esaten zizun	3,57	%74,5
	BATEZBEZTEKOA	3,59	%87,7

Indarkeriazkoenak diren portaerak, burla egitea, mingarriak diren gauzak esatea, berak agindutakoa egiten ez badu utzi egingo duela esatearekin mehatxatzea eta beraien lagunekin egoten ez uztearekin zerikusia dutenak dira. 4tik gorako puntuazioa jasotzen duten portaerak direla azpimarratu behar da, honek larrizat jotzen direla erakusten du. Indarkeriazko portaera nahiko argiak dira, erraz sumatzekoak, ez delako indarkeria erakusteko modu leun edo ezkutukoa.

Nesken eztabaida taldeetan hauetariko portaera batzuk indarkeriazkotzat jotzeko orduan oso zorrotz agertzen dira. Berdintasuna edo indarkeria sexista bezalako kontuetan diskurtso nahiko landua daukate, hori dela eta portaera hauek indarkeria mota bezala identifikatzea nahiko erraz egiten zaie.

Adibidez, mutilarekin harreman sexualak eduki nahi ez izateagatik kritikei buruz ari direnean, honako hau baieztatzen dute:

“Ez dut egingo nik nahi ez dudan ezer”, “Beste neska bat bila dezala”, “Nahi ez izateko eskubide osoa daukazu”, “Nirekin bazaude errespetatu egin behar nauzu, hori argi dago”, “Gogorik ez izatea gaizki iruditzen zaiolako haserretzen bada, eta ez duzula maite esaten badizu, ba orduan arazo bat dauka”.

Hala ere, item honen intentsitatea puntuatzeko orduan, batezbestekoa ez da portaera larri bat bezala hartuko litzatekeen 4ra heltzen. Ekintza hau, taldeetan bildu diren baieztapenekin indartuta ikusten da neskek onartzen dituzten hurrengo aipamenetan: “Askotan mutilak nahi duena egiten amaitzen dugu”, “Hain “harrapatuta” zaude, jada ezin duzula ezetik esan, agian mutila gal dezakezulako”. Gauza asko onartzen dira “mutila galtzeko beldurragatik”, nahiz eta gustatzen ez zaizkien portaerak izan. “Zuk ez dakizu esango dizun; bale itxarongo dizut, ala agur. Neskak ez daki zer gertatuko den”. Harremanean araua mutilek jartzen dute. Era honetako baieztapenen azpian neskentzat bikote harremanak daukan garrantzia dago, harremana ez apurtzearen helburu bakarrarekin saihestea nahiago duten egoerak jasateko gai direla onartzen dutelako.

Beraien objektu pertsonalak arakatzeari dagokionez:

“Zure gauzak zure gauzak dira ... ez dut uste dena jakin behar duenik, ezta??”

“Hasieratik ez badiozu bide ematen, ez dago arazorik”

“Hori pasatzea da. Gauzak begiratzen badizkizu konfiantzarik ez duelako eta kontrolatu nahi zaituelako da”.

Edo mehatxuei buruz hitz egiterakoan mutilarekin bueltatzeko:

“Mehatxuak? Orduan bai utziko dudala”

“Hori aurretiaz ikusten duzu. Oso agresiboa bada edo ..., bestela, ez dizu mehatxurik egiten, nahiz eta utzi”.

“Berarekin buelta zaitezen esaten du, baina benetan ez dizu ezer egingo”.

Erantzunetan sakontzen dugunean, zalantzan eta portaera batzuk justifikatzen hasten direla ikusten dugu. Nesken aldetik beraien bizipen propioei buruz hitz egiterakoan, “Depende” delakoa sarritan errepikatzen den erantzun bat da; orokorrean hitz egiten dutenean oso argi daukate, baina beraien esperientzien adibideak jartzerakoan, mutilen portaerak justifikatzeko modu ezberdinak aurkitzen dituzte.

Lehendabizi portaeraren nahitasuna egongo litzateke. Kasu askotan "maite zaituelako da ... agian zure onerako egiten du" espresioarekin hasten dira. Hasierako baieztapenekin behin eta berriz kontraesanetan erortzen direla ikusten dugu:

"Hain maiteminduta dagoen jendea dago, ez dena konturatzen inposatzen dena, intentzio onarekin egiten duelako", "maite duzunez, zera pentsatzen duzu: maite nauelako izango da, eta nire onerako egiten du".

Bestalde, maitasunak portaerak justifikatzen dituela uste dute, bai mutilenak indarkeriazko portaerak izateko orduan bai beraien erreakzioa hauen aurrean:

"Oso maiteminduta badago sexua nahi izatea normala da"

"Maiteminduta bazaude eta mimotxoekin esaten badizu, azkenean egiten amaitzen duzu", "Maiteminduta zaudenean gertatu egiten da, azkenean amore ematen duzu" (kritikak harreman sexualik eduki nahi ez izateagatik)

Konfiantzak ere paper garrantzitsu bat jokatzen du, zeren gainera, harremana luzatzen bada handitu egiten baita (zenbat eta denbora luzeago eraman elkarrekin, orduan eta larritasun gutxiago ikusten dute portaeretan). Objektu pertsonalak arakatzeari bezalako portaerak justifikatzeko balio die:

"Mutilarekin duzun konfiantzaren arabera"

"Mutilarekin daramazun denboraren arabera, zeren urte bi badaramatzazu konfiantza handiagoa baitaukazu, gehiago ezagutzen baituzu, nolakoa den eta nolakoa ez baitakizu ... Bahimenik gabe ez, niri ez zaidalako gustatzen inork nire gauzak bahimenik gabe hartzea, baina utzi egiten diozu, dena naturalagoa delako ..."

"Batzuetan normala da, gainera gure errua da, uzten diegulako. Gauzak hasieratik argi utzi behar dira, bestela ... baina noski, hasieran oso maiteminduta zaudenez dena uzten diozu ..."

Eta beste batzuk mehatxuak eta kritikak sexua nahi ez izateagatik:

"Mutilarekin daramazun denboraren arabera, urte bi edo horrela badira ... arduratu egingo nintzateke, baina hilabete badaramazue eta mehatxu egiten badizu, tontakeria bat da"

"Denbora gutxi badaramazu badakizu zeren bila doan. Urte bete badaramazu, berriz, pentsatu egingo nuke"

Eta azkenik, mutilen aldetik portaera hauek zenbateko maiztasunarekin gertatzen diren egongo litzateke. Portaera behin bakarrik gertatzen denean, ez dute oso larritzat jotzen:

"Behin bakarrik egiten badu, ez nuke indarkeriatzat joko. Berarekin hitz egingo nuke eta apur bar haserretuko nintzateke, baina ez nuke utziko ..." (kritikak harreman sexualik eduki nahi ez izateagatik).

"Mehatxu bat behin atera ahal zaizu, baina ez gehiagotan"

- **Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea**

Neskek intentsitate handiagorekin sumatzen duten hurrengo dimentsioa harremanen kontrol eta bereganatzean taldekatzen diren portaerekin zerikusia duena da. Indarkeriarekin identifikazioaren portzentajearen batezbestekoa %82,9koa da, eta item ezberdinen intentsitate mailaren batezbestekoa 2,96 da. Hortaz, indarkeriaren identifikazioaren portzentajea altua izan arren, ez direla larritzat jotzen diren portaerak ikusten dugu, intentsitatearen batezbestekoa ez delako 4ra iristen.

Dimentsio honetan intentsitateari dagokionez puntuazio altuago bat eduki duten portaerak hurrengo aipamenekin zerikusia eduki dutenak izan dira: telefono deien edo mezuen kontrola, norekin irten ahal diren ala ez esatea, beste mutil batzuekin lakrikunkeriatan ibiltzea leporatzea eta bere bikotearekin ez daudenean zer egiten duten eta norekin kontrolatzea.

Dimentsio honetan puntuazioak aurrekoan baino apur bat baxuagoak dira, baina ezberdintasuna ez da oso esanguratsua. Gainera, puntuazio altuagoarekin markatutako itemak, kasu bietan, mutilek beraiengan eragindako kontrolarekin zerikusia duela ikusten da. Kasu honetan, era horretako indarkeria nahiko nabaria da ere, horregatik ez da harrigarria beraiak erraztasunez identifikatzea. Ez da gauza bera gertatzen beste portaera batzuen kasuan, adibidez, mutilak jeloskor jartzea neskei telefonoz deitzen dietenean edo beraien janzteko, orrazteko edo margotzeko modua aldatzeko esaten dietenean.

2. taula. Neskek sumatutako portaerak "Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea" dimentsioan.

Item Zenbakia	HARREMANEN KONTROLA ETA BESTEA BEREGANATZEA	Indarkeria maila (0tik-5tera)	BAIEZKOEN %a
3	Egiten duzun guztia jakin nahi du, non zauden edo norekin zauden berarekin ez zaudenean	3	%81,90
7	Azkenaldian, ibili ohi zaren lekuetan agertzen da abisatu gabe	2,48	%71,4
2	Janzteko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esaten dizu	2,92	%88
6	Beste mutil batzuekin ikusten zaituenean, haiek liluratu eta erakarri nahian zabiltzala diotsu	3,14	%88,9
1	Norekin irten zaitezkeen eta norekin ez esaten dizu	3,33	%92,7
4	Zure telefono deiak eta mezuak, baita posta elektronikoa ere, arakutzen ditu	3,57	%91,4
19	Telefonoz deitzen badizute jeloskor jartzen da	2,3	%66,2
	BATEZBEZTEKOA	2,96	%82,9

Eztabaida taldeetan neskek beraiekin ez daudenean egiten dutenaren eta telefonoaren kontrolarekin lotutako portaerak *"jazarpentzat"* edo *"itogarrizat"* jo dituzte. Haietarik askok egiten ziren planteamenduen aurrean sinesgaitzasuna adierazten zuten, mutilek horrela joka zezaketela sinestea kostatu egingo balitzaie bezala.

"Bikote bat, gauzak konpartitzen dituzten pertsona bi direla uste dut, baina beraien aparteko bizitza ere eduki behar dute. Horrela izan beharko luke bederen, ezta? Ba orduan ez dauka sentsurik egiten duzun guztiari buruz galdetzea eta kontrolatu nahi izatea ... hori niretzat jazartzea da".

"Estresagarria, itogarria iruditzen zait", "Nik hori indarkeria dela uste dut" (momentu guztietan non zauden jakin nahi du)

Beraien harremanei buruz hitz egiten dutenean beraien jarrera guztiz aldatzen da, modu baten edo bestean mutilen jokaera justifikatu nahirik, portaerei garrantzia kentzen baitiote. Hemen, bikotearen artean egon behar duen konfiantza berriro jokoan sartzen da. Bikote eremuak edozein portaera jasaten duela dirudi, maitasuna dagoela ziurtzat jotzen delako, hortaz, ez dago intentzio txarrik, ez ezkutatu beharreko sekreturik:

"Zergatik irudituko zait gaizki berak nire mugikorra begiratzea? Konfiantza baldin badago ez diozu zertan ezer ezkutatu behar".

"Nire mugikorra hartzeko ez dit bahimenik eskatu behar ... etxean gaude eta har dezake, nik berea zerbait begiratzeko, musika jartzeko edo beste edozertarako har dezakedan bezala. Ez zait inporta, eta ez dut uste nire mezuak begiratzen hasiko denik".

"Konfiantza baldin badago berdin dio ... baina denbora guztian eskatzen ari bazaizu argi dago ez duela zugar konfiantzarik, hor bai arazo bat ikusten dudana".

"Non eta norekin egon zaren galdetzea normala iruditzen zait". "Pertsonaren arabera, baina ez zait hain itogarria iruditzen. Gure gurasoek ere galdetzen digute, eta ez dugu horrela hartzen".

Indarkeria psikologikotzat hartu beharko liratekeen portaerak justifikatzeko sarri ematen den modu bat, harremanarekin daramaten denbora da; "Mutilarekin daramazun denboraren arabera".

Neskek maitasuna ulertzeko duten moduaren barruan, kontrol portaerak mutilek maite dituztela erakusteko modu batekin erratzen dira;

"Ez zait hain gaizki iruditzen niri begira egotea ... naturala iruditzen zait, nigatik arduratzen dela esan nahi duelako. Oso adi egotea, mesfidantza egotea ... hori beste kontu bat da."

"Agian gustatu ere egiten zait, erromantikoa delako ..."

Neska ibiltzen den lekuetan mutila bera kontrolatzeko agertzen dela planteatzerakoan gauza bera gertatzen da. Portaera hau sarritan gertatuko balitz neurriak hartuko lituzkete, baina ez zaie kontu larria iruditzen:

"Kasualitatez izan liteke!"

"Neskok ere egiten dugu! Ni nire mutil-laguna baino kontrolatzaileagoa naiz!"

"Egunero agertzen bada nik zerbait esango nioke, baina hori ere ez zait indarkeria iruditzen".

Jeloskor sentitzearekin loturiko portaerei dagokienez, fenomeno bera errepikatzen da: teoria oso argi daukate baina beraien harremanetara eramateko orduan, hasierako segurtasuna justifikazio eta zalantza ugaritan bihurtzen da.

Alde batetik, beraien askatasunerako, intimitaterako eta abarrerako errespetua eskatzen dute, eta beste alde batetik, funtsean, jeloskortasuna muturreraino eramaten ez bada ez dela txarra pentsatzen jarraitzen dute, jeloskortasunak zure bikotearentzat garrantzitsua zarela esan nahi duelako; jeloskortasuna maitasun froga bat bezala hartzen jarraitzen da. Jeloskortasun ona eta txarraren arteko mugak oso subjektiboak dira:

"Sarritan, zuk nahi duzuna egiten baduzu, txarto hartzen du, edo beraietaz paso egiten duzula uste dute. Ez zaie buruan sartzen! Beraiek nahi dutena denbora guztian, oso maiteminduta zaudela, beraiekin egon nahi duzula ... erakusten ematen egotea da, eta hori oso itogarria da, ez delako naturala ..."

"Maite baldin bazaitu, suposatzen da, zukan pentsatu beharko lukeela, nahi duzuna egiten utzi, ez ito, ezta?"

Norekin irten eta norekin ez esateko orduan, beraien itxura (arropa, makillajea edo orrazkera) aldatzeko eskatzeko orduan, edo beste mutil batzuekin hitz egiteagatik lakrikunkerietan ibiltzea leporatzen dietenean, gertatzen da. Hasiera baten indarkeria psikologikotzat jotzen dute:

"Hori indarkeria psikologikoa da, ez daukazu askatasunik nahi duzuna egiteko. Bera ez da inor norekin irtengo zaren eta norekin ez esateko".

"Nik bizi izan dut, jeloskortasunagatik edo beste pertsona hori gogoko ez izateagatik. Izorratu egingo duzunaren edo adarrak jarriko dizkiozunaren beldur delako jeloskor jartzen da. Paranoiak dira baina mutilak horrelakoak dira, jeloskor sentitzearena oso ohikoa da, baina konfiantza falta bat da".

"Hori ezin dizu esan, gehiegi da. Kakatzara bidali!"

"Gauza bat jende txarrarekin zabiltzala esatea da, eta beste bat oso ezberdina markatzea da, norekin irten zaitezkeen eta norekin ez esatea".

"Dena kontrolatu nahi badu "astun" bat da, nekagarri bat, jazartzen duen pertsona bat".

"Asko gertatzen da, gehien bat dotore jartzen bazara eta berarekin egongo ez bazara. Ez dauka probokatzen joatearekin zerikusirik, zeren nik ez baitut probokatzen, baina eskote apur bat edo antzeko zerbait eramanez gero hori esaten dizute. Edo zuzenean esaten ez badizute, disimuluz botatzen dizute: Klasera horrela joan zara?"

"Zaren modukoa izanda gustuko bazaitu, ez zaitu aldatu behar" "Ez bazaio gustatzen ez dezala begiratu!"

"Nik iritzia entzuten dut, baina badago. Haiek ere frakak jaitsita joaten dira, galtzontziloak erakusten eta gustatzen ez bazait esan egiten diot".

"Lagunak guztiok dauzkagu, eta ez ditugu utziko mutil batekin hasteagatik ..."

"Jeloskortasuna gaizki dago, indarkeria da. Manipulatu egiten zaituzte, zoratu ... neskak sentiberagoak gara. Etorri eta zerbait esaten badizu, nahiz eta momentuan apur bat berdin izan, gero burua jaten duzu, kezkatu egiten zara, agian ligatzen zebiltzala edo zeneraman arropa apur bat probokatzailera zela, eta abar pentsatzen duzu"

"Hasieran beti, mutil perfektua dela eta bere ondoan gaizki sentitzen bazara autoestimua baxu daukazula, hau da, zeure kontu bat dela pentsatzen duzu. Baina hori oso arriskutsua da, jeloskortasunarekin hasten bada gero txarrago izango da, ziur"

Baina gero, garrantzia murrizten joaten dira, portaerak maitasunarekin justifikatuz, beraiengatik arduratuta egotea, edo baita beraientzat zeintzuk lagun diren onak erabakitzekeo gaitasuna leporatuz ere, portaera paternalista argi baten:

"Jeloskortasuna beharrezkoa da", "Neskok jeloskorragoak gara", "Nire mutil-laguna, oso hurbil, neska batekin hitz egiten ikusten badut, joan eta agirika egiten diot", "Mutilei berdin zaie, gehiago pasatzen dute, beste neska bat bilatzen dute eta kitto".

"Oso maiteminduta bazaude, ezberdina da".

"Aholku bat bada, ondo ikusten dut. Agian jende txarrarekin joaten bazara, min egin diezazukeen jendearekin"

"Azkenean, berarekin irteten zarenean zu ondo janztea edo prestatzea, berarentzat ere "irudia" da, berak zu dotore jartzea nahi du beraiek nabarmentzeko, besteek bere neska laguna zelako polita den ikus dezaten"

"Niri nire itxurari buruz bere iritzia ematea normala iruditzen zait. Nik ere nire lagunekin egiten dut."

"Neskak garelako eta mutilek baino gauza gehiago dauzkagulako erakusteko. Beraiei ezin zaie ezer ikusi, zer esango diezu"

"Alde batetik arrazoia daukate, berak probokatzera zoazela uste duelako (nahiz eta horrela ez izan)"

"Jeloskorra izatea bale, baina puntu bateraino, ez dadila kolpeka hasi histeriko baten moduan".

"Zure bikotea apur bat jeloskorra izatea ez dago gaizki. Nik ez dut nahi nigandik paso egiten duen pertsona bat. Jeloskorra izan dadila horretarako arrazoiak ematen dizkiodanean".

Batzuetan, jeloskortasunarekin lotutako portaerak aproposkoak direla eta kasu horietan ez dietela garrantzirik ematen ere komentatzen dute:

“Nire mugikorrek jotzen badu eta berarekin baldin banago, beti tontakeria berdina esaten du: “Hori maitalea izango da” edo “bestea”, baita erantzun baino lehen ere. Edo mezuren bat ailegatzen bazait, gauza bera. Ni urduri jartzen nau, arrazoirik eduki barik gaizki pentsatzeagatik ... Oso nekagarria da, akitu egiten du. Nik paso egiten dut, nahi dudana egiten dut, ez dut nahi ez naizela aske sentiaraztea”.

Badirudi adiskidetasunaren eta lagunarte bat edukitzearen garrantzia argi daukatela. Ahobatezko iritzia da, guztiek uste dute lagunak zaindu egin behar direla eta ez alde batera utzi mutil batengatik, bitzta sozialetik bakartzea suposatzen duelako. Denborarekin bikote harremana amaitzen bada, zaindu ez duzun lagunarte hori berreskuratzea oso zaila da.

“Lagunak alde batera ez uzteko kontu handia eduki behar da. Asko maite dituzun arren, mutil-lagun bat ez da betirako eta are gutxiago gure adinean. Gazteak gara eta mutil-lagun asko geratzen zaizkigu aurretik (barreak)”.

- **Abusu emozionala**

Intentsitate baxuagoko portzentaje eta puntuazioak lortzen diren dimentsioa abusu emozionalarekin lotutakoa da, %66,9ko batezbesteko portzentajearekin eta 2,63ko batezbesteko intentsitatearekin.

Puntuaziorik altuena jasotzen duten portaerak, neskei beraien bikotea zenbateraino maite duten jakiteko tranpak jartzearena eta beraien haserrealdiak kontuan ez hartzearena dira. Dimentsio honetan, mutilak antisorgailuez ez arduratzea edo hitzordura ez agertzea inolako azalpenik eman gabe, portaera kezkarri bezala ikusten ditugu, ez dira indarkeriarekin identifikatzen.

3. taula. Neskek “abusu emozionala” dimentsioan sumatutako portaerak

Item Zenbakia	ABUSU EMOZIONALA	Indarkeria maila (0tik-5tera)	BAIEZKOEN %a
13	Ez da antisorgailuez arduratzen edo kezkatzen	2,36	%63,5
21	Egunean 10 bat dei galdu (edo mezu) baino gehiago egiten dizu	2,44	%67,9
14	Bere kabuz erabakitzen du kontsultatu barik edo zure iritzia eskatu barik	2,51	%73,3
11	Ez da hitzordura azaltzen inolako azalpenik eman gabe	2,07	%58,1
15	Tranpak jarri dizkizu zenbateraino maite duzun jakiteko	2,65	%76,9
23	Zure haserrealdiak ez ditu kontuan hartzen edo tontakeriatzat jotzen ditu	2,65	%79
25	Berarekin itzultzeko esaten zizun behin eta berriz; aldatuko zela esaten zizun, hitza ematen zizun	1,87	%50
	BATEZBEZTEKOA	2,36	%66,9

Eztabaida taldeetan argi ikusten da neskek bere gain hartuta dutela antisorgailuez beraiek arduratu behar dutela, galtzen aterako direnak beraiek izango direlako. Ez dute uste portaera egokia denik, neska batzuk ere esatera heldu ziren mutilak honetaz arduratzen ez baziren beraiek mutilentzat ez zirelako nahiko garrantzitsuak zela, baina ez dute indarkeria modu bat bezala hartzen.

"Argi dago ez bada arduratzen ez dizulako garrantzirik ematen dela. Berdin zait jartzen badu nik esaten diodalako, normalena erosteaz arduratzea, zuk erosi duzun galdetzea, edo erdi bana erostea izango litzateke, oso garestiak dira eta!"

"Edo zuk erosten duzu edo ezer barik geratzen zara", "azkenean zuk erosten duzu, zure onerako"

"Zu ez bazara arduratzen, bera ez da horretaz arduratuko ..."

"Kondoirik erabiltzen ez baduzu galtzen ateratzen dena zeu zara"

Elkarrekin ez daudenean deien edo mezuen bidez kontrolatzeari dagokionez, nahiz eta puntuazio nahiko baxua jaso duen, eztabaida taldeetan neskek portaera hau jazarpen eta indarkeria psikologikoarekin lotu zuten:

"Niri bai indarkeria psikologikoa iruditzen zaidala. Berarekin ez zaudenean ere presente egon nahi izango balu bezala da, baina ez maite zaituelako, zu kontrolatzeko baizik, jeloskor dagoelako edo beldur delako ..."

"Nik badaukat berarekin egoteko denbora; berarekin ez nagoenean neure kabuz ibiltzea gustatzen zait. Mezu bat bidaltzen badit eta esaten badit "zertan ari zara?", ondo iruditzen zait, lonjan nagoela, edo lagun batekin nagoela, edo edozein gauza esan diezaioket. Baina arratsalde osoa galdezka ematen badu apur bat jazarpena irudituko litzaidake."

"Niri whatsappak idazten dizkit ea klasean ala jolastokian nagoen jakiteko! Nekagarria da, kontrolatzeko da, jolastokian baldin banago norekin nagoen galdetzen dit ..."

"Ni nekatu egingo ninduke. Hamar bider deitzen badit maite nauela erakusteko dela ustea, triste da!"

"Nik ez diot erantzuten, edo gauzak egiten, ikasten edo beste edozertan ari naizela esango nioke"

Azkenik, eta beraiek nesken haserrealdiak tontakeriatzat jotzen dituztelako kontuan hartzen ez dituztenaren portaerari lotuta, neskek uste dute mutilek duten beraien irudia okerrekoa dela, baina onartuta daukate. Errespetugabeko portaera bat dela uste dute, baina ez dute indarkeriatzat jotzen ez direlako konprometituta sentitzen:

"Denbora guztian egingo balu utzi egingo nuke".

"Haserretuko banintz, berak ni kontuan ez hartzea, niri oso gaizki irudituko litzaidake: "Ni zerbaitegatik kexatzen banaiz arrazoiarekin da, ez tontakeriagatik. Eta entzun egin beharko lidakeela uste dut". "Haserretzen banaiz eta maite banau, arduratu egin beharko luke"

"Beti bazterrak nahasten dizkiegula, beti edozergatik haserretzen garela esaten dute, baina ez da hori. Nik ondo iruditzen ez zaizkidan gauzak esan egiten ditut, haserretu barik, baina momentuan esaten dizkiot. Horregatik esaten dute."

Kontu honen ildotik, bikotearen arteko komunikazioari buruzko eztabaida bat sortzen da, batzuetan elkar ulertzeko zailtasuna daukate, neskak estereotipo klasikoenetan erortzen dira, korapilatsuak eta konplexuak direla onartuz, mutilak, berriz, sinpleagoak dira eta gehiago kostatzen zaie hitz egitea.


“Mutilek bakarrik nahi dute neska bat beraien esanetara eguneko 24 orduetan, berak nahi duena egin dezazun”

“Haiek zerbait esaten dizutenean argiak dira, arazoa, guk esaldi soil batetik aukera piloa atera ditzakegula da. Gehiegi interpretatzen dugu! Oso korapilatsuak gara eta haiek oso sinpleak eta nahiko itxiak.”

“Guk dena pentsatzen dugun moduan esaten dugu eta beraiek ez. Azkenean guri lan bikoitza egitea tokatzen zaigu, pentsatzen ari direna asmatu behar dugulako. Eta beste gauza bat da guk gaizki iruditzen zaiguna esaten diegula, haiek, berriz, dena gordetzen dute eztanda egin arte, eta dena soltatzen dizute.”

“Guk gure harremani buruz gehiago hitz egiten dugu, egunez egunean mutil-lagunarekin nola doakigun, arduratzen gaituena eta gauza horiek gure artean gehiago aztertzen ditugu. Beraiek hitz egingo dute, baina ez hainbeste. Ziur esaten dutela eta gutxi gehiago.”

“Asteburuan mutil bat ezagutu baduzu, zure lagunari nolakoa den kontatzen diozu, jatorra bada, eta abar., egin duzunean sartu ala ez. Beraiek esango lukete, “Neska katxarro bat ezagutu dut!” eta gutxi gehiago.”




Emaizak mutiletan

Indarkeria psikologikoaren sumatze maila mutiletan

VEC Eskalako baremoaren arabera, lor daitekeen gehiengo puntuazioa 125 da.

- Indarkeria psikologikoaren **pertzepzio baxua: 0tik 55 puntura: %28,70a**
- Indarkeria psikologikoaren **erdiko pertzepzioa: 56tik 92 puntura: %46,29a**
- Indarkeria psikologikoaren **pertzepzio altua: 93 puntutik gorako puntuazioa: %25a**

Baremazio hau erabiliz, inkesta erantzun zuten mutilen %28,70ak bikote harremanetan indarkeria psikologikoaren pertzepzio baxua duela ikusi dugu, %46,29ak indarkeria horren erdiko pertzepzio bat eta %25ak pertzepzio altu bat. Datu hauek beste ikerlan batzuetan lortutakoekin parekoak dira (Ondarroa, Markina-Xemein, portzentaje altuena lortzen duena erdiko pertzepzioarena da, %50,67koa)



Mutilek nola sumatzen duten indarkeria

- **Ageriko indarkeria**

VEC Eskalak biltzen dituen indarkeria psikologikoaren dimentsio ezberdinei dagozkien datuak aztertzerakoan, mutilek intentsitate handiagoarekin sumatzen duten dimentsioa ageriko indarkerian taldekatutako portaerarekin loturikoa dela ikusten dugu, hau da, indarkeria nabariagoa den haietan. Indarkeria dela erantzun duten mutilen portzentajea %89,75ekoa da (batezbesteko portzentajea) eta eman dioten intentsitate maila 3,66koa da (batezbeste). Beraz, identifikazio portzentaje altua nabari den arren, intentsitatearen puntuazioa ez da behar bezain altua, ez delako 4a izango litzatekeen larritasun mailara ailegatzen.

Intentsitate altuago batekin puntuatzen diren itemak, neskak harreman sexualak izatera behartzeari buruzkoak, edo uzten dituztenean edo beraiek nahi dutena egiten ez dutenean modu ezberdinetan mehatxatzeari buruzkoak dira. Lehen azpimarratu dugun moduan indarkeriazko jarreretatik kanpo utzi ezin diren portaerei buruz ari gara, baita itemen enuntziatuak berak ere erraz identifikagarriak egiten ditu.

1go taula. Mutilek "Ageriko indarkeria" dimentsioan sumatutako portaerak

Item Zenbakia	AGERIKO INDARKERIA	Indarkeria maila (Otik-5tera)	BAIEZKOEN %a
24	Sexu-harremanak izateko derrigortzea	4,11	%91,7
14	Uzten bazaitu bizimodu jasanezina egitearekin mehatxatu	4,03	%93,5
5	Mehatxatzea ez duenean egiten nahi duzuna edo kontra egiten dizunean	4	%92,6
21	Eztabaida batean gauzak jo, bota edo apurtu	3,57	%85,9
19	Berak egin nahi ez dituen edo bere gustukoak ez diren sexu-jokoetara behartu	3,73	%93,51
16	Berari barre egitea, beste neska batzuekin konparatzea, gauzak esatea jakinda lotsatu egingo dela edo min emango diotela	3,25	%87,7
11	Ez badu nahi sexu-harremanik izan zurekin, kritikatzeta eta zalantzan jartzea maite zaituenik	3,16	%86
20	Bere lagunak ez ikusteko esatea	3,44	%87,15
	BATEZBEZTEKOA	3,66	%89,75

Mutilek eztabaida taldeetan, dimentsio honetan jasotako portaerak indarkeria moduak direla aho batez adierazi dute. Arazoa, bikote gazteen artean era honetako portaerak ez direla ematen uste dutela da. Neskekin gertatzen den moduan, mutilek indarkeria sexista edo berdintasunarekin zerikusia duten tailer eta programa ezberdinetan parte hartu dutela jasota dago, zenbait portaera identifikatzeko erraztasuna egiaztatzen delako, edo baita hitz egiterakoan erabiltzen duten diskurtso landua ere, beraien harreman afektiboetan duten esperientziarekin.

"Ez badu nahi, ez du nahi, zer esango diot!" "Horregatik ezin zaio kritikatu, nahiz eta gogoekin geratu" "Hori indarkeria da ... behartzea bortxaketa bat izango litzateke!" "Uzten banau, berataz paso egin eta badago. Nola egingo diozu mehatxu"

"Ez badizu uzten, ez dizu uzten" "Egun baten bada nahi ez duena ez da ezer gertatzen, baina beti izatea ... hori ere ez da normala, baina behartzea ... sekula ere ez."

"Bere ingurutik bakartzea oso txarra da ...". "Bere neska edo mutil-lagunarekin luzaroan egoteagatik bakarrik geratu den jendea ezagutzen dut. Dena alde batera uzten baduzu, gero gainontzekoa galtzen duzu, eta lagunak beharrezkoak dira."

Hala ere, salbuespen bat aurkitu genuen: taldeetariko baten, eztabaida baten gauzak apurtzea edo jotzea "lasaialdi" modu batekin identifikatzen da, eta ez dute gauza negatibo bat bezala ikusten ezta ere indarkeriarekin identifikatzen, are gutxiago pertsonaren kontra ez bada "neskak jotzen ez ditugun bitartean ...". Bat edo batek, bere etxean haserretzen denean bere logelan "lasaialdia" hartzen duela, komentatzen du, eta portaera hau nahiko aho batekoa da: "hormari osti bat eman ... edo zerbaiti ostikada bat ... neskei jotzea baino hobea da". Baita indarkeriaren erabilera defendatzen zuten ere, neska bada "txalo" bat ematen diena: "ez naiz geldirik geratuko bera emakumea izateagatik ..."

- **Jazarpena eta deskalifikazioa**

Mutilek intentsitate handiagoarekin sumatzen duten hurrengo dimentsioa jazarpen eta deskalifikazioan taldekatutako portaerekin zerikusia duena da. Batezbesteko identifikazio portzentaje indarkeriarekin %74,60koa da, eta item ezberdinen batezbesteko intentsitate maila 2,58 da.

Puntuazio handiena jasotzen duten itemak, mugikorretako mezuen kontrolari edo sare sozialetako kontaktuei eta emakumeei buruz mespretxuzko komentarioak egiteari buruz hitz egiten dutenak dira. Hala ere, ematen zaien puntuazioa 3koa da, hortaz, ez dira larritzat jotzen diren portaerak.

2. taula. Mutilek sumatutako portaerak "Jazarpena eta deskalifikazioak" dimentsioan

Item Zenbakia	JAZARPENA ETA DESKALIFIKAZIOAK	Indarkeria maila (0tik-5tera)	BAIEZKOEN %a
9	Berak jasotako deiak, mezuak, helbide elektronikoa, Tuenti-a edo Facebook-a kontrolatzea	3,07	%85,1
10	Bera dagoen tokietara joatea, zer egiten duen eta zeinekin dagoen jakiteko	2,83	%80,21
12	Zure zeloen errua berari bota, berak zeloak eragiten dizkizulako	2,30	%68,5
18	Egunean 10 dei edo mezu baino gehiago egitea, jakiteko zertan dabilen	2,51	%77,3
13	Bere aurrean emakumeei buruzko iruzkin mesprezuzkoak egin	3,04	%84,2
8	Jaramonik ez egitea haserretzen denean edo bere haserrealdiak tontakeriak direla esatea	1,69	%52,4
	BATEZBEZTEKOA	2,57	%74,6

Jeloskortasunari dagokionez, esperientzia handirik eduki ez duten mutilek ez direla jeloskorrak, ez dutela arazo hori baieztatzen dute. Harreman gehiago eduki dituztenek, berriz, ezberdin ikusten dute. Azken hauek uste dute jeloskortasuna "ez dela txarra, neskatik zerbait sentitzen duzula esan nahi du, oso gehiegizkoa ez den artean". Noiz den gehiegizkoa galdetzen zaienean, ez daukate guztiz argi.

Sare sozial edo mugikorreko dei edo mezuen kontrolari dagokionez, mugikorra edo Facebook, Twiter eta gainontzeko kontuen kontrolaren artean desberdintasuna egiten dute. Jazarpena dela baieztatzen dute, baina gero justifikatzeko nesken argudio berean erortzen dira, hau da, konfiantza:

"Mugikorra oraindik, baina gainontzekoa ez. Dena den, konfiantza badago, zergatik ezkutatuko duzu!"

Egunean zehar 10 bider baino gehiagotan deitzea jakiteko zer egiten ari diren jazartzea iruditzen zaie: *"Nik gero galdetu egiten diot, baina ez dut nekatzen"*, beraz, ez dute egiten eta ez luketela egingo baieztatzen dute. Mutilek "jazarpen" hori gurasoen eskutik sentitzen dute,

eta astakeria bat dela eta ez dela ezertarako beharrezkoa, uste dute. Dena den, Whatsapparen bidez kontaktuan egoten dira, eta asko erabiltzen dute, nahiz eta kontrol era baten moduan ez izan, elkarrekin ez daudenean gauzak komentatzeko baizik: *“Whatsappetik berarekin nire lagunekin baino gehiago hitz egiten dut”*. Elkarrizketen edukari buruz galdetzen zaienean, non dauden edo zer egiten ari diren esaten dutela, baina neskek ere galdetzen dietela, eta ez dagoela kontrolatzeko intentziorik ez beraien aldetik ezta nesken aldetik ere, baieztatzen dute.

Taldeetarako baten, egunean zehar 1000 mezu inguru idazten dituztela, eta hauetatik %50a edo 75a bikoteari idatzitakoak direla baieztatzen zuten.

Emakumeei buruzko mespretxuzko komentarioak egitea iraintzat jotzen dute, egingo ez luketen zer bait, beraien dituzten liskarretan emakumeen iritzia gutxietako joera dutela komentatzen duten arren, garrantzirik ez zaiola eman behar ere baieztatzen dute, nesken iritzia errespetatu barik liskarra saihestea dela helburua dirudi. Beraien arrazoiketak komunikazio falta bat erakusten duten adierazpenekin gogortzen dituzte: *“Hain zoro daude ... guztiak”*

- **Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea**

Jasotako puntuazioaren arabera hurrengo dimentsioa harremanen kontrola eta bestea bereganatzearen barruan taldekatutako portaerena da. Kasu honetan identifikazioaren portzentajea %71,26koa da, eta batezbesteko intentsitatea 2,36koa. Puntuazio altuago bat jasotzen duten itemak, itxurarekin sartzea edo bere bikotearen pentsaera eta norekin irten behar duten eta norekin ez dira. Azken item hau, beste pertsonarekiko kontrolaren modu oso argi batena da, eta hala eta guztiz ere, 3ra heltzen ez den intentsitatearen batezbesteko puntuazioa jasotzen du.

Bikote nerabeetan genero rolek nola jokatzeko duten islatzen duen ekintza esanguratsu bat da, horien arabera haiek oso argi daukate beraien kontrolaren gaitasuna, eta gainera, bidezkoa iruditzen zaie.

3. taula. Mutilek sumatutako portaerak “Harremanen kontrola eta bestea bereganatzea” dimentsioan

Item Zenbakia	HARREMANEN KONTROLA ETA BESTEA BEREGANATZEA	Indarkeria maila (0tik-5tera)	BAIEZKOEN %a
2	Bere itxura edo pentsatzeko erarekin sartzea	2,85	%84,3
6	Jantzeko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esatea	2,06	%64,3
1	Neskari esatea zeinekin irten behar duen eta zeinekin ez	2,75	%80,3
7	Bere zereginei uko egitea eskatzea, zenbat maite zaituen frogatzeko	2,54	%79,6
3	Errieta egin beste mutilekin hitz egiten duenean ligatzen dabilela uste duzulako	2,22	%64,9

4	Ez agertzea eta bakarrik lagatzea azalpenik eman barik	1,75	%54,2
	BATEZBEZTEKOA	2,36	%71,26

Eztabaida taldean, mutil gazteenen artean, bikotearen arteko "kontratuak", konfiantza baldin badago, dena jasan dezakeela pentsatzeko joera bat sumatzen da. Bikotetik gustatzen zaien eta gustatzen ez zaien guztiari buruz hitz egin daitekeela eta hitz egin behar dela uste dute, nahiz eta argi eduki ez dutela kritikatu behar edo inposatu behar. Bai kritikak bai azalpenak elkarrekikoak izan behar dutela ulertzen dute. Gaiaren inguruan "bazilatzea" eta kontrolaren arteko ezberdintasuna ikusten dute, beti portaeren nahitasunaren arabera. Ez da gauza bera ez zaiela nesken arropa gustatzen beste estilo bat nahiago dutelako esatea,edo oso probokatzaile doalako eta horrek jeloskor jartzen dituelako esatea.

Zentzu honetan, batzuek bikotearen arteko konfiantza faltan eta nesken aldetik dauden ustezko probokazioetan kokatzen dute jeloskortasuna, baina orokorrean ez dute gauza txartzat jotzen, *"Jeloskorra ez bazara, ... beragatik ez duzulako ezer sentitzen da"*, ez dute uste kuadrillan edo bizitzako beste arlo batzuetan jeloskortasuna eman daitekeenik, bikotearen arteko zerbait eksklusiboa dela baizik.

Beste mutil batzuekin lakrikunkeriatan dabilela uste dutelako bere bikoteari agirika egitekotan, enfasia nahitasunean jartzen dute, eta bikotearen arteko komunikazio behar izanera, dena hitz egin behar izatera bueltatzen dira, baina ez dute beraien mesfidantza zalantzan jartzen.

"Hitz egiten bakarrik ari badira ..."

"Hori nor den edo norekin hitz egiten ari den galdetzen diot, baina ez diot agirika egiten!"

Xelebreki, eztabaidan zehar, beraien inguru hurbilenean bikoteen mugikorra, Facebook eta Twiterreko kontuak kontrolatzea ohiko gauza dela onartzen dute. Era berean, bikotea non dagoen, norekin eta une bakoitzean zer egiten ari den jakitea normala iruditzen zaie. Harremanen kontrolaren aldetik, ez dirudi argi dutenik indarkeriazko portaerak direnik.

- **Mespretxua eta manipulazioa**

Mutilek intentsitate handiagoarekin sumatzen duten azken dimentsioa, mespretxuan eta manipulazioan taldekatutako portaerekin zerikusia duena da. Indarkeriarekin identifikazioaren portzentajearen batezbestekoa %62,10ekoa da, eta item ezberdinen intentsitate mailaren batezbestekoa 2,08a da. Dimentsio honetan, bai indarkeriaren identifikazioaren portzentajeak bai puntuazioaren intentsitateak, jaitsiera esanguratsua duela ikusten da. Honek, benetan, egoera hauetan gauzatzen den indarkeria psikologikoa oso modu epelean sumatzen dutela esan nahi du.

Puntuazio altuago bat jasotzen duten itemak, beraien bikoteei, begira diezaieten, oso probokatzaile jantzen direla esatea eta beraien akatsak ez onartzea dira.

Berriro nesken gan duten kontrolaren legitimazioa ikusten dugu, antisorgailuak ez erabiltzeko ekin eta ekin ibiltzea ez dela indarkeria psikologiko larritzat jotzeko punturaino, nahiz eta ondorengo eztabaida taldeetan esandakoaren arabera, ondorioez kontziente izan.

4. taula. Mutilek "Mespretxua eta manipulazioa" dimentsioan sumatutako portaerak

Item Zenbakia	MESPRETXUA ETA MANIPULAZIOA	Indarkeria maila (0tik-5tera)	BAIEZKOEN %a
23	Laga zaituenean, aldatu egingo zarela esatea, berriro zurekin egon dadin	1,58	%50,40
17	Elkarrekin egin beharreko planak zeuk erabakitzea (zein egunetan irten, nora joan, ordutegiak)	1,93	%58,20
25	Zure akatsak ez onartzea edo barkamenik ez eskatzea	2,40	%71
22	Besteek begiratzea nahi duelako era probokagarrian janzten dela esatea	2,50	%73,90
15	Zuen sexu-harremanetan preserbatiborik ez erabiltzea	2,01	%57
	BATEZBEZTEKOA	2,08	%62,10

Eztabaida taldeetan mutilak, galdetegietan indarkeria moduak bezala kalifikatu dituzten portaera batzuen aurrean berresten dira. Era horretako portaerarik sekula edukiko ez dutela uste dute, baina eztabaidan zehar ez dutela hain argi ikusten dugu.

Bere bikoteari, beste batzuek begira diezaioten, modu probokatzaille baten jantzea leporatzearen portaeraren aurrean, nahiz eta inkestetan argi eta garbi indarkeriazko portaera bezala identifikatu zuten, intentsitatearen puntuazioaren batezbestekoa baxua dela azpimarratu dugu, eta taldeetan modu politikoki zuzen baten aritu ziren, beste jarrera eta portaerei buruz hitz egiten duten bezala bikotearen artean hitz egin daitezkeen gauzak direla esanez. Bikoteari zer gustatzen zaion eta zer ez jakin behar dela uste dute, hori dela eta argi dago iritzia ematea zuzena dela, onerako ala txarrerako. Hala ere, eztabaidan zehar, jeloskor jartzen direla onartzen dute, eta ez dutela esan behar uste dute, horrek beraiengan konfiantza falta adierazten duelako:

"Egia da jeloskor jartzen naizena, baina ez diot aldatzeko esaten ... nahiz eta batzuetan oso probokatzaille jantzi"

Barnean, bikotea beraien jabetzakoa dela eta, beraz, kontrolatzeko eskubidea daukatela agerian usten duten iritzi batzuekin aurkitzen gara:

"Ezagutzen ez duzun eta bere laguna ez den mutil batekin hitz egiten ari dela ikusten baduzu, eta neskekin ligatu nahian dabilela sumatzen baduzu ... ba apur bat urduri jartzen zara (barreak). Jarraitzen duela ikusten baduzu, eta berdin jarraitzen badu, mutilarengana joan behar duzu eta lau gauza esan".

Beraiek oso probokatzaile joatearren neskek kritikatzeko nola hartuko luketen planteatzerakoan, hori ezinezkoa litzatekeela, probokatzearena "nesken gauza" dela erantzuten dute barre artean.

Bai mutilek bai neskek genero rol klasikoak errepikatzen dituztela ikusten dugu, ez bakarrik probokatzeke janzteko kontu honi dagokionez, beste aspektu askotan baizik. Hainbat eztabaida taldetan mutilek *"emakumeak gaiztoak dira; ez guztiak, baina gehiengoak. Kontrolatzaileagoak dira, gehiago pentsatzen dute ..."* baieztatu zuten. Mutilek, emakumeak korapilatsuak direla, beti gaizki pentsatzen dutela eta beraiek baino mesfidatiagoak direla uste dute, baina beraiek emakumeenganako mesfidantza orokortua onartzen dute, ustezko promiskuitate bati etengabeko aipamenekin *"neskengan sekula ez da fidatzen ehuneko ehunean"; honela neskengan eragin behar duten kontrola justifikatzen dute, "maitakerietan norekin dabilen jakiteko"*, beraiek, *"daramaten desfase maila"* ikusteko neskek kontrolatzen dituztela, baieztatzen duten bitartean. Azpian, neskek *"izatez"* desleialak izatearen ideia dago, beraien arazoa gehiago *"desfasean"* dagoenean, baina hau ez doa desleialtasunari lotuta.

Mutilek neskei egozten dieten roletariko beste bat, arrazoi barik haserretzen direla, *"siempre me la lío"* delakoa, edo *"edozeriaz kexatzen dira"* da.


Beste alde batetik, beraiekin bultzatzea lortzeko, bikoteari aldatuko direnaren promesak egitearen portaera justifikatzen dute: *"Hori ez da indarkeria ... saiatzeko da"*

Barkamena eskatzeko edo beraien akatsak onartzeko orduan, egin beharko zutela uste izan arren, kostatu egiten zaiela onartzen dute, eta nolabait beraien ahultasuna neskengan egozten dute, elkarrenganako portaera bat izan behar duela baieztatuz, neskek ere egin beharko zutena. Zintzoenek batzuetan *"urquiluagatik"* ez dutela egiten komentatzen dute.

Beraien bikoteekin egiten dituzten planak erabakitzeari dagokionez, batzuek planak bikotearekin antolatzen dituztela baieztatu arren, dena biren artean erabaki behar baita, askok azkenean neskek dutela azken hitza diote; *"Beti berak erabakitzen du. Azkenean berak nahi duena egiten dugu ..."*. Neska dela agintzen duena eta kapritxo guztiak ematen dizkietenaren rolean beraien burua ikustea gustatzen zaiela sumatzen da.


Azkenik, beraien harreman sexualetan preserbatiborik ez erabiltzeko ekinean ibiltzeari dagokionez, iritzi berekoak dira, modu sendoan kritikatzeko duten portaera bat da. Portaera honek galdetegietan eduki duen intentsitate baxuarekin egiaztatzen du, hori dela eta jarrera politikoki zuzena hartzen egotea izan liteke. Preserbatiboa beharrezkoa dela uste dute, ez daukate zalantzarik. Beraiek direla erabili nahi ez dutenak planteatzea oso gehiegizkoa iruditzen zaie. Ondorioak oso argi daukate, nahiz eta orokorrean nahi ez diren haurdunaldiak buruz soilik hitz egiten den, eta ez kutsapen sexuarekin gaizotasunei buruz (azken hau talde baten bakarrik atera da).

Dena dela, beste portaera batzuekin gertatu den moduan, eztabaida aurrera doan heinean hasierako ziurtasuna balantzaka dabil, mutil batzuek azken hitza neskek daukela eta *"zuk nahi ez izan arren, berak nahi badu ez daukazu zer eginik"* komentatzen baitute, honek era baten beraiek nahiago dutela ez erabiltzea erakusten du.



NESKEN ETA MUTILEN EMAITZEN ARTEKO KONPARAKETA

Indarkeriaren nesken eta mutilen pertzepzio maila




PORTAERA BAKANETAN AURKITUTAKO EZBERDINTASUNAK

Galdera bakoitzaren portzentajeen konparaketa

Jarraian item zuzenei nesken eta mutilen erantzunetan ezberdintasun esanguratsuak aztertzen ditugu.

Portaera zehatzak EZ direla indarkeria psikologikoa uste izan duten batezbesteko portzentajeari eta portaera horiek indarkeriatzat jo dituztenen intentsitate mailaren arabera emandako batezbesteko portzentajei buruzkoa da.


1-26. Norekin irten zaitezkeen eta norekin ez esaten dizu



Item honetan, EZ erantzun zuten nesken eta mutilen artean ezberdintasun garrantzitsu bat nabarmentzen da, eta baita 5eko intentsitate bat ematen dioten nesken eta mutilen artean ere. Portaera hau indarkeria bezala identifikatzen ez duten mutilen batezbestekoa %19,8koa da, neskena, berriz, %7,2koa. Intentsitatearen kasuan, item hau 5 batekin puntuatu zuten nesken batezbestekoa %30,1ekoa da, mutilena, berriz, %14,2koa.


Honek, mutilek bikote harremanaren barruan beraien kontrolaren rola oso barneratuta daukatenaren ideia indartzera garamatza.

2-31 Janzteko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esaten dizu



Berrito item honetan, mutilek (batezbesteko %35,8ak), nesken itxuraren gaineko kontrola ez dutela indarkeria modu bat bezala identifikatzen ikusten da, nesken kasuan, berriz, %12ak.


6-28 Beste mutil batzuekin ikusten zaituenean, haiek liluratu eta erakarri nahian zabiltzala diotsu



Portaera honetan, jeloskortasunari buruz, indarkeria psikologikoarekin identifikatzeko orduan zailtasun gehien dauzkatenak mutilak izaten jarraitzen dute; batezbesteko %35,2ak ez dela indarkeria esaten du, neskek, berriz, %11,1ak. Neskaka dira ere gehiengo baten 5eko intentsitatea ematen diotenak (batezbesteko %28,4a).

Kasu honetan eztabaidetan aurrerago adierazitako ideia dago azpian, hau da, neskek desleialak izateko joera daukatela. Era honetako portaerak aztertzeke orduan genero rolek indarrarekin jokatzen dute.

9-41 Burla egiten dizu eta, horretarako, min handia ematen dizuten kontuez baliatzen da



Emakumeekiko mespretxuarekin loturiko portaerei dagokienez, larriagotzat jotzen dituztenak neskak dira; batezbesteko %65,1ek 5eko intentsitate bat ematen dio, mutilen kasuan, berriz, %19,8ak. Azkotan modu leunago baten agertzen diren era honetako portaerekin mutilak askoz permisiboagoak direla ikusten dugu. Neskek, berriz, argiago dutela eta pertsona bezala iraintzen dituzten portaerei garrantzi handiago bat ematen diotela dirudi.

ONDORIOAK

Aldez aurreko gogoeta bezala, azpimarragarriak diren alde batzuk daude. Ikerketako aldagarrien artean (adina, ikasketa maila, ikasketa zentroa eta egungo harremana) esanguratsua azkena bakarrik izan da, harremanetan gutxiengo esperientzi bat izateak (bikote harreman bakarra eduki duten neskek edo mutilak) beraien iritziak guztiz baldintzatzen dituelako.

Baldintzapen hau, galdetegietan ez da izan ondoren antolatu diren eztabaidetan bezain nabaria. Orokorrean, esperientzia gutxi daukaten neskek askoz zorrotzagoak agertzen dira, eta beraien bikoteen aldetik zeintzuk portaera ez lituzketen sekula onartuko argi dutela dirudite. Mutilak beraien aldetik inozoagoak dira, planteatzen ziren egoera batzuk irrealak direla uste izatearen punturaino, mutil batek neska bat harreman sexualak edukitzera behartzea bezala.

Esperientzia gehiago duten neskek eskakizun maila jaisten dute beraien bikoteen portaerei dagokienez, ez dira hain zorrotz agertzen eta mutilen portaerak sarriago justifikatzen dituzte. Mutilek, beraien aldetik, nahiz eta detektatzea zaila izan, jada gazteen arteko bikote harremanetan ez dute indarkeria dagoenik ukatzen.

Honi lotuta, ikerketan zehar eta galdetegiaren erantzunetan bereziki, bai neskek bai mutilek sarritan modu politikoki zuzen baten erantzuten dutela, eta bai indarkeriazko egoerak identifikatzeko orduan bai beraien iritziak argudiatzeko orduan, emakumeen kontrako indarkeria eta berdintasunari buruzko diskurtso nahiko landu bat daukatela sumatu da.

Politikoki zuzen eta garatutako diskurtso honen atzean, beraien ikasketa zentroetan azken urteetan gazteek parte hartu duten programa eta dinamika ezberdinen eragina dago, baita instituzioetatik egin diren kanpaina ezberdinak ere.

Bai neskek bai mutilek indarkeria sexista edo "egin behar dena eta egin behar ez dena" zer den nahiko argi daukatela ikusten dugu, baina alde batzuetan sakontzeko orduan, edo norberaren esperientziari buruz hitz egiten dugunean, eduki izan dituzten edo egun daukaten bikote harremanei buruz ari garenean, diskurtsoa aldatu egiten da eta nahasi bihurtzen da, kontraesanak agertzen dira, eta hasiera baten indarkeria iruditzen zitzaiena maitasun erakusgarri bat izatera hel daiteke.

Jasotako emaitzen analitik, lehenengo eta behin, neskek eta mutilek indarkeria modu guztiz ezberdinean sumatzen dutela ondorioztatu dezakegu, planteatutako portaera ezberdinei ez diote larritasun bera ematen, eta gainera, ez daude ados beraien iritziak azaltzeko moduan, bai portaera bortitzak identifikatzeko edo bai justifikatzeko.

Ikerketan parte hartu duten nesken gehiengoak indarkeriaren pertzepzio baxua dauka, mutilen gehiengoak, berriz, erdiko pertzepzioa; hau da, beraien harremanetan portaera eta jarrera bortitzak onartzeko neskek mutilek baino zailtasun handiagoak dituzte. Mutilek, berriz, beraien harremanetan zein motatako portaerekin egongo lirartekeen indarkeria erabiltzen oso argi identifikatzen dute, neskei horrelakoak detektatzea gehiago kostatzen zaie.

Baina baieztapen hau zehaztu egin behar da, ageriko indarkeria nabariena eta argiena delako, eta mutilek oso errez identifikatzen dutena. Indarkeria leunagoa den egoerei buruz ari garenean, ez dituzte larritzat jotzen edo soilik ez dituzte indarkeriazkotzat jotzen.

Nesken balorazioetan, larritzat edo oso larritzat soilik egoera bi jo zituztela ikusi genuen, hau da, 4 baino puntuazio altuagoa portaera bik bakarrik jaso zuten. Portaera hauek mespretxuzkoak ("Burla egiten dizu eta, horretarako, min handia ematen dizuten kontuez baliatzen da") eta mehatxuzkoak ("Berarekin itzuli ezean zerbait egingo zizula esaten zizun") dira.

Alderantziz, neskentzat hain larriak ez diren portaerak abusu emozionalarekin zerikusia daukate: manipulazioa ("Berarekin itzultzeko esaten zizun behin eta berriz; aldatuko zela esaten zizun, hitza ematen zizun"), axolagabetasuna ("Ez da hitzordura azaltzen inolako azalpenik eman gabe", "Bere kabuz erabakitzen du kontsultatu barik edo zure iritzia eskatu barik") edo jeloskortasuna eta harremanaren kontrola ("Telefonoz deitzen badizute jeloskor jartzen da", "Azkenaldian, ibili ohi zaren lekuetan agertzen da abisatu gabe", "Egunean 10 bat dei galdu (edo mezu) baino gehiago egiten dizu". Neskentzat hain larriak ez diren portaeren artean "Ez da antisorgailuez arduratzen edo kezkatzen" aurkitzeak arreta deitzen du.

Era honetako portaerak indarkeriazko portaera bezala ez identifikatzeak edo zerbait larritzat ez jotzeak bikote harreman baten osagai arruntak direla adierazten du.

Honela, nesken argudio arruntenean barruan mutila oso "harrapatuta" edo maiteminduta egotearena dago. Honek, adibidez, neskarekin bueltatzeko ekin eta ekin ibiltzea, edo neskarengan, bere ekintzetan, bere dei eta mezuetan ... kontrola eragitea justifikatzeko balio die. Soilik portaera oso errepikagarria den kasuan hasten dira jazarpenari buruz hitz egiten.

Kontraesanetan sarritan erortzen dira, alde batetik intimitate eskubidea aldarrikatzen dutelako, beraien espazio eta lagunak edukitzea, bestetik, berriz, beraien bikoteen jeloskortasuna justifikatzen dute (baldin eta muturrera eramaten ez badira) interes edo maitasun mozorroa jarriz.

Eta neskek, portaera bat errepikatzen bada, maiz gertatzen bada, larriagoa dela uste dute.

"*Depende*" delakoa beti presente dagoen nahitasunak ere beraien erantzunak markatzen ditu. Beraiengatik arduratzen delako bada, maite duelako bada, bere onerako bada ... orduan, jarrera edo portaera justifikatuta dago. Batzuetan, mutilek, beraientzat zer den ona ala zer ez jakitearen gaitasuna dutela uste izateraino.

Harremanarekin daramaten denbora ere faktore garrantzitsua da, gehien bat kontrolari eta jeloskortasunari buruz hitz egiteko orduan. Neskak, "denbora bat daramazunean, konfiantza dagoenean", ez dagoela ezer ezkutatzeko esaterakoan bat datoz, hortaz, mugikorreko deien, mezuen edo neskekin ez daudenean egiten dutenari buruzko kontrola bezalako portaerak normaltzat jotzen dira.

Beraien iritziei buruz axolagabekeria eta mespretxuarekin hitz egiten denean, jarrera hauek indarkeriazko jarrera bezala identifikatzea kostatu egiten zaie. Ez zaizkie egokiak iruditzen, besterik ez, errespetu falta bat iruditzen zaie haratago begiratu gabe, eta mutilekin komunikatzeko dauzkaten zailtasunei ere leporatzen diete. Kasu honetan estereotipoez

baliatzen dira, mutilak oso sinpleak eta neskak oso korapilatsuak direla baieztatuz, eta horregatik mutilek, neskak beti zerbaitengatik haserre daudela uste dute, gertatzen dena, etengabe beraien nahiak eta beharrak, edo gaizki iruditzen zaiena adierazten dutela bada, mutilek, berriz, dena gordetzen dute. Onartuta daukate ere, beraien kezkek edo neskentzat eztabaida arrazoi bat izan daitekeena, beraiei tontakeriak iruditzen zaizkiela.

Beste adibide bat, neskek antisorgailuez arduratu behar dutela onartzen dutela da, mutilak ez direla arduratuko argi daukatelako. Nahiz eta ondo ez iruditu, ez dute indarkeriazko portaera bat denik uste.

Bikote eremuan denak balio duenaren sinesmena kezkagarria da. Mutil bat beraiekin badago maite duelako dela ulertzen dute, bestela ez liratekeelako elkarrekin egongo. Maite badu, ez dio minik egin nahi, hori dela eta, maitasunaren aterpean egoteagatik edozein jarrera barkatzen da. Halaber, neskek beraientzat atseginak ez diren edo zuzenak ez direla dakiten portaerak eta egoerak, harremanaren onerako, onartu behar dituztela onesten dute. *"Maiteminduta bazaude, ez diozu erantzuten" (pasatzen denean), azkenean maite duzun pertsona da..."*

Hala ere, mutilengandik gauza bera eskatzea ez da sumatzen, beraiek ere ez dute horrela adierazi eztabaida taldeetan.

Beste alde batetik, neskek, harremanari beraiek mutilek baino balio handiagoa ematen diotela ulertzen dute. Honek gustatzen ez zaizkien egoerak eta portaerak onartzera eramaten ditu; *"Txarto iruditzen zait, baina ez da nortasun falta, harrapatuta zaituela eta edozer egiten duzula baizik", "Mutilei berdin zaie, gehiago paso egiten dute, beste bat bilatzen dute eta kito", "Egiten baduzu maite duzulako da, maitasunagatik. Mutil bati azkenean berdin zaio".* Era honetako erantzunetan, genero estereotipoen eragina argi eta garbi identifika daiteke, eta hauen arabera zeharo maitemintzen direnak eta maitasunagatik dena ematen dutenak neskak dira, eta mutilak askoz ere azalekoagoak dira, nahi dutena ematen ez badiete, harreman batetik beste batera pasa daitezke. Mutilek harreman sexualei garrantzi handiago bat ematen dietela, harreman sexualik eduki ezean bikote harreman bat amaitu egiten denaren arrazoiak delako, ere sumatzen da. Hau nesken kasuan ez da aipatu.

Mutilen kasuan, larrienak iruditzen zaizkien portaerak lehen ageriko indarkeria bezala aipatu ditugun barruan daude, eta indarkeria fisikoarekin eta mehatxuekin zerikusia daukate (*"Sexu-harremanak izateko derrigortzea", "Uzten bazaitu bizimodu jasanezina egitearekin mehatxatu", "Mehatxatzea ez duenean egiten nahi duzuna edo kontra egiten dizunean"*). Arazo a da, portaera hauek bikote gazteen artean ezin direla eman uste dutela.

Gainera, axolagabekeria eta manipulazioari buruz neskak eta mutilak iritzi berekoak dira, *"Laga zaituenean, aldatu egingo zarela esatea, berriro zurekin egon dadin", "Ez agertzea eta bakarrik lagatzea azalpenik eman barik"* eta *"Jaramonik ez egitea haserretzen denean edo bere haserrealdiak tontakeriak direla esatea"* honelako kontuak portaera ez hain larrien artean kokatzen dituztelako. Hain larriak ez direla uste duten beste portaera batzuk, mutilek jelskortasunarekin eta harremanean eragiten duten kontrolarekin ere, zerikusia daukate (*"Elkarrekin egin beharreko planak zeuk erabakitzea (zein egunetan irten, nora joan,*

ordutegiak”, “Janzteko, orrazteko edo makillatzeko era aldatzeko esatea”, “Errieta egin beste mutilekin hitz egiten duenean ligatzen dabilela uste duzulako”).

Azkenik, galdetegietan mutilek puntuaziorik baxuena eman dioten portaeren artean “Zuen harreman sexualetan preserbatiborik ez erabiltzeko ekin eta ekin” aurkitzen dela azpimarratu.

Beraien iritzietan, berdintasunari buruzko tailer edo programa ezberdinetan parte hartzeagatik izan litezkeen kontraesan larriak aurkitzen ditugu, eta honek beraien erantzunetan politikoki zuzenak izatera eramaten ditu. Horrela dela argi ikusi da eztabaida talde batzuetan mutilek defentsiban erreakzionatu zutelako, ikerketaren ikuspegiak beraiak erasotzaile bezala eta emakumeak biktima bezala kokatzen zituela, eta horrela ez zela berdintasunaren alde lan egiten ari baieztatuz.

Alde batetik, indarkeriazko zenbait portaera erraztasunez identifikatzen dituzte eta zergatia nola argudiatu oso argi daukate, beste alde batetik, berriz, ez dituzte genero rolak zalantzan jartzen eta ez dituzte beste portaera batzuk nahiko larritzat hartzen, edo soilik ez dute uste indarkeriazkoak direnik.

Neskek bezala, bikote eremuak dena jasaten duela uste dute, hortaz, jeloskortasun edo kontrol egoerak planteatzen zaizkienean, neskengan dituzten konfiantza arazoengatik edo probokatzen dituztelako, justifikatzen dituzte.

Adibide bezala, beraien inguru hurbilenean bikotea kontrolatzea gauza normala dela onartzen dutela aipa genezake, bai telefonoaren bidez bai sare sozialetan duten aktibitatearen bidez edo momentu guztietan non dauden enteratuz.

Genero rolak nola errepikatzen dituzten islatzen dituzten iritzien artean, oso esanguratsuak diren batzuk aurkitzen ditugu, adibidez, hobe da nesken iritzia saihestea eta arrazoa ematea ez eztabaidatzeko edo ez dituztela neskak ulertzen “denak zoratuta daudelako”, komunikatzea galarazten dioten nesken eta mutilen arteko ezberdintasun bateraezinez baliatuz.

Beste batzuk, mutil hain gazteen ahotan harrigarriak dira gutxienez, sekula ezin dela neska batekin guztiz fidatu (kontrolean bat justifikatzeko), edo neskak azalekoagoak direla eta edozergatik haserretzen direla, edo lakrikunkeriatan ibiltzen direla eta berez probokatzailleak direla bezalakoak, ezarritako rolak errepikatzen dituztela argi eta garbi erakusten dute.

GOMENDIOAK ETA PROPOSAMENAK

Mugitzen garen errealitatea aldatzeko desparekotasunak betikitzen dituzten mekanismoak desaktibatzen joatea beharrezkoa da, eta hauek neska mutil gazteen inguruan aurkitzen dira: familia, eskola, komunikabideak, sare sozialak, beraiek bezalako beste gazte batzuk ... Beraien inguru guztia ezin dugula kontrolatu argi dago, baina eragina izaten saia gaitzke. Indarkeria sexistarekin bukatzeko sentsibilizatzea eta modu integralean prebenitzea garrantzitsua da.

Egun, esparru ezberdinetatik (instituzioak, ikasketa zentroak, gazteentzat lokalak, eta abar.) berdintasuna eta emakumeen kontrako indarkeriaren inguruko sentsibilizazio lan garrantzitsu bat egiten ari da, baina ez da nahikoa. Egiten ari diren esfortzuak argi eta garbi sumatzen dira, baina gehiago sakondu behar da. Neska eta mutil gazteak indarkeriak zertan datzan jakitetik bere agerpen guztietan identifikatzera eta beraien harremanetan antzematera pasatu behar dira. Teoria argi daukate, baina praktikan sakontzea beharrezkoa da, indarkeria errealean, inguratzen dioten eta bikote helduetan ez bada ikusten ez duten horretan.

Horretarako, indarkeriaren sentsibilizazioan eta prebentzioan behin eta berriz ekiteaz gain, bere zimenduak dinamizatzen saiatzen diren, desparekotasunak, rolak eta genero estereotipoak lantzen dituzten, maitasun erromantikoaren gezurrean sakontzen duten ... ekimenak burutzea beharrezkoa da.

Ikerketaren ondorioak ez ezik, ikerketa bera ere zabaltzea beharrezkoa da. Neska mutil gazteen iritzia islatzen duten aipamen literalak, kontzientziazio eta sentsibilizazio lan baterako harrigarriak eta argigarriak izan daitezke, gehienbat kontuan hartuz bikote harremanetan indarkeria sexista oraindik askorik ezagutzen ez den fenomeno bat dela eta bikote helduetan soilik ematen denaren ideia indarrean dagoela.

Ikerketa zabaltzearen formatua bere hartzaille diren neska eta mutilei egokitu beharko zaie, baina bera osatzen duten mankomunitate eta udaletako langileekin partekatzea gomendatzen da, bereziki herritarrekin zuzenean lan egiten dutenekin, egiten duten sentsibilizazio eta prebentzio lanean ikuspegi hau txertatu eta prestakuntza behar posibleak detektatu hala izateko. Halaber, beraien ekintza zuzenean neska eta mutilekin lotuta dagoen kultur elkarte, kirol elkarte, aisialdi elkarte, eta abarrek ikerketaren emaitzak jaso beharko lituzkete.

Ikasketa zentroek planteamendu bera jarraitu behar dute. Alde batetik, ikerketaren ondorioak irakasletzarekin partekatzea beharrezkoa da, ikasleriarekin zuzenean tratatzen dutenak direlako, baina beste alde batetik, irakasletzan prestakuntza behar posibleak detektatzen eta baita ematen diren programen edukietan "doitzen", berdintasun eta indarkeria programak kudeatzen dituen taldeari lagun diezaioke.

Gazteekin lan bat egitea beharrezkoa dela argi dago. Ikasketa zentroetan indarkeria sexistari buruzko prebentzio programak egon arren, ikerketak neska mutil gazteek beraien harremanetan indarkeriari buruz duten pertzepzioa ezagutzen lagunduko du, eta honek lan ildo ezberdinak ireki ahal izango lituzke.

Inplementatzen diren programak iraunkorrak izatea, jarraipen bat edukitzea eta hitzaldietara edo noizbehinkako saioetara ez mugatzea, era honetako ekintzak ez direlako eraginkorrak izaten, ezinbestekoa iruditzen zaigu. Gaur egun neska-mutilek dauzkaten esperientziei eta

erreferenteei, adibidez, nerabeei zuzendutako telesail eta pelikulen edukiak erabiliz, programen edukia egokitzea garrantzitsua da.

Neska eta mutilekin, bakoitzarekin bere aldetik, lan egitearen garrantzia azpimarratu, lehenago azaldu den bezala bai batzuek eta bai besteek indarkeria sexista modu guztiz ezberdinean sufritu eta bizi dutelako. Dena den, gizarte honetako gaitz honekin bukatzeko neskek eta mutilek elkarrekin lan egin dezaten, lan misto bat ere beharrezkoa da.

Eta azkenik, amekin eta aitekin lan egitea gomendatzen da, bai Mankomunitatetik edo ikasketa zentroetatik. Baina ez neska eta mutik nerabeen gurasoekin, adin txikiko neskato eta mutikoenekin baizik, prebentzioan familiarik lagundu ahal izateko moduan.